

# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 4481

*EBAZPENA, 2023ko irailaren 21ekoa, Kulturako sailburuordearena, 2023. eta 2024. urteetan euskal kultura-ondarea babesteko ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzak emateko dena.*

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2023ko ekainaren 8ko Aginduaren bidez (ekainaren 19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 115. zk.), 2023. eta 2024. urteetan euskal kultura-ondarea babesteko ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzen deialdia arautzen da.

Eskabideak aztertu ondoren, eta deialdiaren 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Balorazio Batzordeak, 2023ko abuztuaren 4an egindako bileran, dirulaguntzak emateko proposamena egin zuen.

Horregatik guztiagatik, Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita, eta aipatutako aginduaren 17. artikuluekin eta aplikazio orokorreko gainerako xedapenekin bat etorritik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei dirulaguntzak ematea, zehazten diren zenbatekoekin.

Bigarrena.– Eskatutako dirulaguntza ukatzea ebazpen honen II. eranskinean ageri diren pertsonen, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– III. eranskinean zehaztutako eskabideak ez onartzea, bertan azaldutako arrazoiengatik.

Laugarrena.– Proposatutako onuradunek agindu arautzailean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan oro har indarrean dauden gainerako baldintza guztiak ere.

Bosgarrena.– Diruz lagundutako proiektuek 2023ko ekitaldian hasi edo hasita egon beharko dute. Amaitzeko epearen azken eguna 2024ko urriaren 25a izango da, eta ezin izango da gauzatzeko epea data horietatik aurrera atzeratu edo luzatu.

Seigarrena.– Dirulaguntza arautzen duen aginduaren 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, honela ordainduko da dirulaguntza:

a) Lehenengo ordainketan dirulaguntzaren % 50 ordainduko da, dirulaguntza ematen den nean, berariaz uko egiten ez bazaio.

b) Gainerako % 50a gastua justifikatu ondoren ordainduko da, dirulaguntzaren indarraldia amaitu eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Zazpigarrena.– Emandako dirulaguntzak aginduaren 21. eta 22. artikuluetan xedatutakoaren arabera justifikatu eta likidatuko dira. Nolanahi ere, justifikazio-agiriak aurkezteko azken eguna 2024ko azaroaren 6 da, egun hori barne.

Zortzigarrena.– Ebazpen hau pertsona eta erakunde interesdunei jakinaraztea.

2023ko irailaren 29a, ostirala

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.2 artikulua araber.

#### AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari hilabeteko epean, pertsona eta erakunde interesdunek ebazpen honen jakinarazpena jaso edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 21a.

Kulturako sailburuordea,  
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

2023ko irailaren 29a, ostirala

## I. ERANSKINA

## EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

| Eskatzailea                 | Esp. kod.    | Proiektuaren izenburua  | Dirulaguntzaren diru- kopurua | 1. ordainketa (2023) | 2. ordainketa (2024) |
|-----------------------------|--------------|---|-------------------------------|----------------------|----------------------|
| Aranzadi Zientzi Elkartea   | 011-KOI-2023 | Lote-paisaiak: Iratzedien eta ihidien bilakaera historikoa Euskal Herriko herri-lurren baitan.  | 15.000                        | 7.500                | 7.500                |
| Apraiz Sahagun, Amaia       | 002-KOI-2023 | Miradores y cuerpos volados de madera.  | 15.000                        | 7.500                | 7.500                |
| Azpeitia Santander, Arturo  | 010-KOI-2023 | Nuevos protocolos para la gestión del impacto de la contaminación visual en el patrimonio cultural de la CAPV. Investigación y experimentación en los Centros Hº de Vitoria, Bilbao y Donostia. | 15.000                        | 7.500                | 7.500                |
| Bejarano Gil, Nerea         | 009-KOI-2023 | Propuesta de valoración del patrimonio: vidrieras de las parroquias y ermitas del Gran Bilbao.  | 15.000                        | 7.500                | 7.500                |
| Berjón Lobato, Miguel Ángel | 016-KOI-2023 | Determinación y delimitación de las zonas 0 de ocupación de los grupos de cazadores-recolectores durante el pleistoceno en la Llanada oriental (Municipio de Asparrena, Álava).                 | 6.221                         | 3.110,50             | 3.110,50             |
| Díez Oronoz, Aritz          | 006-KOI-2023 | Estudio histórico de las casas de pescadores tradicionales del litoral vasco: Getaria, Zumaia, Ea, Elantxobe.   | 12.380                        | 6.190                | 6.190                |
| Etkezarraga Ortuondo, Iosu  | 021-KOI-2023 | Presbiterioa bereizteko elementu fisikoak Euskadiko tenplu kristauetan (Antzinaro Berantiarra-Aro Berria).  | 11.300                        | 5.650                | 5.650                |
| García Gómez, Ismael        | 019-KOI-2023 | Cladística y filogénesis del románico alavés. Un análisis por seriación arqueológica.   | 15.000                        | 7.500                | 7.500                |
| Hidalgo Masa, Jagoba        | 005-KOI-2023 | Patrones de poblamiento de la Edad del Hierro en la Euskadi atlántica. Fase III.  | 14.000                        | 7.000                | 7.000                |
| Loza Uriarte, Miguel        | 007-KOI-2023 | Aportación al conocimiento sobre la lengua, la onomástica y la vida cotidiana en los tres territorios vascos en época romana gracias al estudio de los grafitos realizados sobre instrumentum.  | 15.000                        | 7.500                | 7.500                |
| Martin Fernández, Álvaro    | 022-KOI-2023 | Análisis arqueológico del poblamiento rural romano de la Llanada Alavesa oriental.  | 11.170                        | 5.585                | 5.585                |

2023ko irailaren 29a, ostirala

| Eskatzailea                   | Esp. kod.    | Proiektuaren izenburua   | Dirulaguntzaren diru- kopurua | 1. ordainketa (2023) | 2. ordainketa (2024) |
|-------------------------------|--------------|--|-------------------------------|----------------------|----------------------|
| Santamarina Otaola, Josu      | 004-KOI-2023 | Ekin eta ekin. Estudio arqueológico del sistema hidroeléctrico vasco.  | 15.000                        | 7500                 | 7.500                |
| Soto Sebastián, Adriana       | 014-KOI-2023 | Territorios, prospección y protección. La identificación de asentamientos al aire libre a partir de la territorialidad prehistórica. | 14.929                        | 7.464,50             | 7.464,50             |
| Varón Hernández, Felix Rafael | 015-KOI-2023 | Monitoreo mediante UAS`s en yacimientos de cronología clásica y postclásica en el Territorio Histórico de Álava.                     | 15.000                        | 7.500                | 7.500                |
|                               |              | Guztira:   | 190.000                       | 95.000               | 95.000               |

2023ko irailaren 29a, ostirala

## II. ERANSKINA

## UKATUTAKO ESKAERAK

| Eskatzailea                      | Esp. Kod.    | Proiektua  | Arrazoa |
|----------------------------------|--------------|--|---------|
| Del Pozo Mate, Alejandro         | 018-KOI-2023 | Pintura barroca en Gipuzkoa (1600-1750). Catálogo de obras y diccionario de artistas.  | (1)     |
| Fernandez Carbajal, Jose Angel   | 020-KOI-2023 | Estudio de las antiguas redes de abastecimiento y saneamiento de la CAV. Valoración y protección patrimonial.  | (1)     |
| Gómez Díez, Francisco            | 012-KOI-2023 | Ni un vasco sin pan. Estudio histórico-arqueológico del patrimonio de la Red Nacional de Silos y Graneros en el Territorio Histórico de Araba/Álava. | (2)     |
| Martín Echebarría, Gorka         | 003-KOI-2023 | De Wellington a Espartero. Arqueología de los campos de batalla a inicios del siglo XIX. Fase II   | (2)     |
| Romano Vallejo, María            | 001-KOI-2023 | Establecimientos comerciales emblemáticos.   | (2)     |
| Sánchez López de Lafuente, Aitor | 008-KOI-2023 | Patrimonio en la orilla. Investigación para la protección de los yacimientos prehistóricos situados en el embalse de Urrúnaga (Araba).               | (2)     |

(1) Lortutako puntuazioa ez da iristen dirulaguntza jasotzeko eskubidea izateko agindu arautzailean ezarritako gutxienera (aginduaren 15.1 artikulua).

(2) 15. artikuluan ezarritako gutxieneraren pareko puntuazioa edo handiagoa lortu du, baina erabilgarri dagoen partida ez da iristen dirulaguntza emateko.

2023ko irailaren 29a, ostirala

## III. ERANSKINA

## BAZTERTUTAKO ESKAERAK

| Eskatzailea               | Esp. Kod.    | Proiektua   | Arrazoia |
|---------------------------|--------------|---|----------|
| Aranzadi Zientzi Elkartea | 017-KOI-2023 | San Adrian - Lizarrate: Bidean geroa eraikiz -<br>Construyendo un futuro en el camino.  | (1)      |
| García Odiaga, Íñigo      | 013-KOI-2023 | Protección del Patrimonio Edificado mediante análisis<br>y reproducción digital. El caso de la gárgola del<br>Palacio Zarautz del conjunto monumental de Getaria. | (1)      |

(1) Dirulaguntzaren xede den jarduerak ez du betetzen dirulaguntza hauen xedea (aginduaren 2. artikulua).